

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2013ko urtarrilaren 16a. IX. urtea. 2.465. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Alegian Oria ibaiak eta Amezketaren erreka bat egiten duten tokian ura ateratzen; Baliarraingo Ibiur urtegia goiko ur zuloetatik ateratzen da, atzo, ur-jauzi baten itxura hartuz. E.MAIZ

Euriak bere bidetik ateratu dituzte urak

Etenik gabeko euri jasak eskualdeko ibai, erreka eta urtegiaren eragina izan du; ohiko hainbat puntutan ura ateratu da, eta alerta egoeran egon dira larrialdi zerbitzuak

Baliarraingo Ibiur urtegia lehen aldiz guztiz bete da, eta atzo eguerdia baino lehen goiko ur zuloetatik ura ateratzen hasi zen; zenbait luizi ere eragin dituzte euriteak 05

Ibai Iriarte

Tolosaldea Garatzeneko lehendakaria

«Eskualdean bizi garen guztiok eskutik joan behar dugu»

Tolosaldeko egoera ekonomikoaren inguruan hitz egiterakoan, Iriartek, aurrera joateko bidea «desberdinen artean» egin behar dela dio 03

Berastegiko udaletxea berritzeko obrak bukatzeaz daude

Bi astetan bukatuko dituzte udaletxeko lehenengo zatiko lanak; eraikinaren egitura, kanpoaldea, teilatua eta lehen solairua konpontzen ari dira 07

Tolosaldeko osasun zerbitzuaren balantze txarra egin du TOPAK

Larunbatean, 12:00etatik aurrera, ekitaldi simbolikoa egingo du Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde koordinakundeak, Tolosan 06

Herritarrak AHTaren aurkako mobilizazioetara deitu dituzte

AHT Gelditu! Elkarlanak deituta, bihar, 08:30ean, desjabetzeen aurkako elkarretaratzea egingo dute, Anoetako udaletxearen aurrean 04

Tolosaldea ›

→ **Laburrak**

Gazteentzako ikastaroak Topagunean

TOLOSA › Tolosako Udaleko gazteria sailak, 16 eta 30 urte bitarteko gazteei begirako hainbat ikastaro antolatuta ditu, euskaraz. Jaten duguna gara izango da lehenengoa, eta urtarrilaren 21etik martxoaren 18ra bitarte izango da, astelehenero, 18:30etik 20:30era. Beste bi ikastaroak honakoak dira: DJ eta Scratch ikastaroa eta norberaren gitara egokitzeke Madness Custom ikastaroa. Izena emateko azken eguna bihar izango da, kultur etxean.

Autobusen geltoki aldaketa, igandean

TOLOSA › Ero Etxeko krosa dela eta, igande honetan, urtarrilak 20, ibilbide luzeko autobusek nahiz TSST autobusek, beren ibilbideak eta geltokiak aldatu beharko dituzte. Horrela beraz, 10:00etatik 14:00etara, Rondilla 34ren ordez, Zumardi Txiki alboko Santa Klaran egingo dituzte dagozkien geldialdiak.

Tolosako Korrika batzordearen bilera, bihar

TOLOSA › Aurtengoa 18. Korrika izango da, eta Andoainen hasiko da, martxoaren 14an. Egun berean pasako da Tolosatik, eta festa herrian sustatu eta girotzea da antolatzaileen helburua. Horretarako, bihar Korrika batzordearen bilera izango da, 18:30ean, Lizardi kultur elkarte-an.

Lara Arruabarrena, Australiako Openetik kanpo

TOLOSA › Lara Arruabarrena tenislari tolosarra Australiako Openetik kanpo geratu da lehenengo errondan. Taiwango Su-Wei Hsieh tenislariaren aurka galdu du 7-6(5) eta 6-2 emaitzarekin, ordu eta 40 minutuko norgehiagokan. Bigarren seta ondo hasi duen arren, ezin izan du taiwandarrarekin.



300 parte hartzaile inguruk eman dute izena, aurtengo lehiaketan. I. URKIZU

Udalak San Estebango pabiloi bat hartu du, karroza eta konpartsak prestatzeko

Datorren otsailaren 1a bitarte, inauterietako lehiaketan izena emateko aukera izango da

Itzea Urkizu Tolosa

Tolosako Udalak, aurten ere, pabiloi bat alokatu du, inauterietako karroza eta konpartsen prestatutzarako. Iaz Amaroitz auzoan alokatu zuten eraikinaren gisa berean funtzionatzen ari da, eta San Esteban auzoan dago. Urtez urte inauterietan gorantz doan parte hartzearen isla da hau, izan ere, ferialekuak eta pabiloiak ezin izango diete aterpe eman, karroza eta konpartsa guzti-guztietan. Aurten, «gutxi gorabehera iaizko eskaera bertsua izan du udalak, karroza eta konpartsen lehiaketan parte hartzeko», Mikel

Arreseigor zinegotziak azaldu duenez. Horrela, 300 konpartsa inguruk beren sormena dantzan jarriko dute 2013ko inauterietan.

San Esteban auzoko pabiloia hartuta inauterietako gehiagok lan egin ahal izango duten arren, «aurteko urteetan bezalaxe, ez dira guztiak sartuko; eskera guztietan erantzuteko Usabalgo industrieguna osoa beharko genuke, iaia», dio Arreseigorrek.

Ferialekuaren eta pabiloiaren erabilera, beraz, izen ematearen arabera antolatuta du Tolosako Udalak, aurten ere. Kanpoan geratu diren hainbat parte hartzaileentzat, berriz, Ferialekuaren kanpoan dagoen teilatutxoa egokituko dute, haren aterpean, behinik behin, lan egin ahal izateko: «Badakigu, hala ere, ez dela gauza bera ferialekuaren aritzea, edo kanpoan aritzea».

Baldintza berriak 2013rako

Datorren otsailaren 7an hasiko dira inauterietan, 12:00etan, txupinazoarekin; hiru aste eskas beste-

rik ez dira geratzen beraz. Karroza eta konpartsen lehiaketako izen ematea, hala ere, zabalik da oraindik: otsailaren 1a bitarte izena eman ahal izango da, bai kultur etxean, baita <http://www.tolosakoudala.net> webgunean ere.

Aurtengo lehiaketan, gainera, zenbait aldaketa egin ditu Tolosako Udalak, lehiaketa arautu eta zorrotze aldera. Besteak beste, karrozek eta konpartsen plata-

Parte hartzaileek aurrez prestatutako emanaldi bat egin beharko dute

formek izan beharreko gutxieneko neurriak jarri dituzte. Modu honetara, karrozek, behinik behin, 2,5 metroko zabalera izan beharko dute, eta luzera, berriz, 7 metrokoa edo gehiagokoa izango da. Altuerari dagokionez, karrozak ezingo du metro bateko altuera baino gutxiago izan.

Konpartsei dagokionez, 2 metrokoa izango da gutxieneko zabalera, eta 3 metrokoa, gutxieneko luzera.

Halaber, karroza eta konpartsek aurrez prestatutako emanaldi bat eskaini beharko dute, dieta edo diru laguntza jaso ahal izateko.

Azkenik, eta udalak aurrerago zehaztuko duen moduan, parekidetasuna eta euskararen erabilera sustatzen duten karrozak eta konpartsek, zenbait hobari izango dituzte.

'Ikasmina: herriz herri' egitasmo ibiltaria gaur abiaraziko dute, Altzon

Herritarrei Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntzaren inguruko informazioa eskaintzea da helburua

I. Urkizu Tolosa

Gaur hasiko da, Altzon, *Ikasmina: herriz herri* egitasmo berria. Tolosaldean Ikastn-ek antolatuta, eta Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntza proiektua sustatzeko asmoz, Tolosaldeko herri guztietara helaraziko dute *Ikasmina: herriz herri*, datorren martxora bitarte.

Gemma Zelaia arduradunak azaldu duenez, hiru dira, egitasmoaren helbururik behinenak: «Eskualdean bizi diren biztanleei ikasmina sustatzea, ikaskuntzarako aukera guztien informazioa eskainiz; udalerrietan ikasminaren arrastoa uztea, ikaskuntza beharrik detektatuz; eta azkenik, Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntza gizarteratzea».

Horrela, beraz, 46.000 biztanle ingururi eragitea da antolatzaileen nahia. Izan ere, informazioa eta aholkularitza doan eskainiko dute herriz herri prestatutako dituzten guneetan.

Besteak beste, norberaren interes eta gaitasunak indartu, garapen propiorako tresnarik eragin korrenak landu, ikasteko gogoia pizten duten arrazoiak ezagutu, zeharkako gaitasunak indartu, hezkuntzaren esparruan norberak izandako esperientziak hitz egin, edo bakoitzak arlo honetan dituen hutsune eta premiak ezagutu ahal izango dira jarriko dituzten informazio guneetan.

Herriz bakoitzeko udaletxeetan, kultur etxeetan, liburutegietan nahiz eskoletan eskuratu ahal izango da Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntzaren inguruko informazioa. Astelehen, asteazken eta ostiraletan, 09:00etatik 13:00era bitarte izango dira, eta astearte eta ostegunetan, berriz, 14:00etatik 18:00etara.

Gaur hasiko dira, Altzon, eta jarraian, Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Badaio, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irua, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Zizurkil, Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia eta Alkiza bisitatuko dituzte.

Hitzordua aurrez ere eska daiteke, ikasekin@tolosaldea.com era idatziz, edo 943 65 11 47 nahiz 615 77 56 78 telefonoetara deituz.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Ibai Iriarte ◉ Tolosaldea Garatzeneko lehendakaria

Tolosaldeko egoera ekonomikoaren inguruan hitz egiterako unean sinergia hitza aipatzen du behin eta berriz Ibai Iriartek.

«Eskualdea zertara bideratu nahi dugun hausnartzen hasi behar dugu»

Asier Imaz

Tolosako alkatea izateaz gain, Tolosaldea Garatzeneko lehendakaria da Ibai Iriarte (Tolosa, 1983). Eskualdeko egoera ekonomikoaren inguruan hitz egin du Iriartek **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA** egunkariarekin. Aurrera joateko, bidea «desberdinen artean» burutu behar dela dio.

LAB eta ELA sindikatuetakoa Tolosaldeko ordezkariak, epe luzeko plan estratergiko baten beharra aldarrikatu dute. Tolosaldea Garatzeneko lehendakari bezala, bat egiten al duzu irakurketa horrekin?

Bai. Udaletxera sartu ginenean, hitzarmen sozioekonomikoa behin eta berriz aipatzen genuen. Eskualdeko herrien artean daukagun harremana handia da; astero elkartzen gara, eta plan estratergiko horren beharra mila bider aterata da.

2011n eskualdearen egoeraren inguruko plan bat egin zuen Deloittek. Non gelditu da lanketa hori?

Lehiakortasun plan hori, eta aurrez egin diren guztiak, estatistikoak dira guztiz, hau da, argazki finko bat dira. Guk aurrera begirako plan estratergiko bat dugu buruan, eskualdean mila bider aterata baita behar hori. Momentu honetan bidea lantzen ari gara, eta Lehiberriren aurkezpenean jarriko dugu mahai gainean.

Egitasmo horren ardatz nagusiak zeintzuk izango dira?

Eskualde mailako eragile sozioe-

konomiko desberdinak bildu behar gara, publiko zein pribatuak; udalez gain, lehen, bigarren eta hirugarren sektoreko aktoreak; alderdi politikoak... Azken finean, zeresana duten eragileak elkartu behar gara, eta etorkizuneko eskualdea zertara bideratu nahi dugun hausnartzen hasi behar dugu.

Iraganean egin diren plan guzti horien ondorioz, eskualdea zein egoeratan dagoen azaltzen duen informazioa badaukagu, beraz, horren gainean hasi behar dugu hitz egiten desberdinen artean. Denok bizi garenean eta bizitzen jarraitu nahi dugun eskualde honen etorkizuna nolakoa izatea nahi dugu? Galdera honen inguruan ildo estratergikoak markatu beharko ditugu, aurrera begirako pausoak sortuz. Sinergiaz hitz egiten ari gara, elkar ekintzez.

Noiz jarriko duzue martxan lanketa hau?

Udaberrietik aurrera hasiko gara. Aurretik planaz hitz egiten ari gara, adibidez, badakigu zeinekin egin nahi dugun: Lanki-rekin. Mondragon Unibertsitatean dagoen ikerketa taldea da Lanki. Eurekin hitz egiten hasiak gara, plangintza zehazteko. Lehen esan moduan, Lehiberrirekin batera aurkeztu nahi dugu.

Berandu dela ere aipatu zuten sindikatuetako ordezkariak.

Horrela da. Eskualdean, 90. hamarkadako krisialdiaz geroztik, egiturazko gainbehera bat dau-

kagu. Testuinguru ekonomikoa ona izatean, egiturazko gabezi hauek ez dira azaleratu, baina testuinguru horrek okerrera egin duenean, egiturazko gabezi hauek azaleratu egin dira. Horregatik gabiltza berandu, baina eutsi beharreko gaia da. Planteatzen ari garenarekin ez dira fruituak bihar edo etzi jasoko, etorkizunari begira ari gara hitz egiten. Lehen esan bezala, eskualde honetan bizi garen guztiok eskutik joan behar dugu, Tolosaldeak dituen beharrak hauek dira, eta hau eskatzea gatz, batera esanaz.

Datekin jarraituz, lanketa hau noizeko gongo da amaituta?

Eragile desberdinen arteko elkarlanaz ari gara hitz egiten, eta sinergia horietan lan egiteko, lehenik eta behin, parte hartze kulturala sustatu behar da. Ez gara ari norberak dituen beharrez hitz egiten, ikuspegia askoz globalagoa da, hau da, eskualdeaz ari gara hizketan, beraz, gutxina-gutxina lantzen joan beharko diren gauzak dira.

Amaiera? Plan honen funtsa ondorengoa litzateke: lantaldeak sortzea, ildo estratergikoak mar-

katzea, eta ildo horien jarraipena egiteko lantaldeek martxan jarraitzea. Ildo estratergiko horiek garatzen doazen bitartean, puntu eta garapen gune berriak sortuko liriteke. Elkar eragina sortu behar dugu, orduan, amaierarik gabeko proiektu batez hitz egin beharko genuke.

Hau da, lanketa honetatik ez da aterako ez dakit zenbat orri dituen txosten bat; plan estratergikoa hau da esaten duena.

Ez dugu txosten berri eta panpox bat nahi, gero armairu batean sartzeko. Lan egiteko modu berriak sortu nahi ditugu, eskualdean dauden indar gune eta eragile bidez: elkarguneak sortu, hitz egin, ebatzi, erabaki eta lanean batera jardun.

Eragile desberdinekin hasi al zarete lanketa honen inguruan hitz egiten?

Zerrenda osatzen ari gara une honetan. Hausnarketa estratergiko horri begira, hainbat bilera eginak ditugu Lanki-rekin, baina oraindik ez gara eragileekin harremanetan jarri; horretan gaudela. Txikitik hastea hobea dela iruditzen zaigu, gero egikaritzen joateko. Ez dugu saldu nahi sendagai magikorik, ez dagoelako. Nahia-

go dugu umiltasunetik eta isiltasunetik hasi, eta poliki baina gauzak ondo egin. Indarrez eutsi beharreko gaia dela iruditzen zaigu: beharrezkoa. Eragileei mila bider deitzen zaie gauzetan parte hartzeko, eta gero, kaxoi batean gelditzen diren planak izaten dira. Ez dugu horrela lan egin nahi.

Eskualdearen sare industrialia nolakoa den kontuan hartu beharko da guzti honetan.

Udaletxeen artean denbora darimakigu gai honen inguruan eztabaidan, denon kezka baita. Argi duguna zera da, orain arteko marko eredu horietakorik ez dugula nahi. Aurreko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eredu eta etortzen zait burura: Gipuzkoa Aurrera. Hemen sare industrialia enpresa txikiez osatua dago: lantegien %94 hamar langile baino gutxiagok osatzen dute. Hori da Tolosaldean daukaguna; ez dago motor lana egingo duen enpresa bat, CAF baten moduan. Daukaguna erabili behar dugu, eta ez jendeari denbora eskatu, ondoren txoko batean geldituko den plan bat egiteko. Eraginkorraz izan behar dugu, eta baita zintzoak ere, zer dagoen eta zer ez dagoen argi azalduz.



HITZA

Denboralearen argazki lehiaketa

Bidali Tolosaldean eta Leitzaldean ateratako denboralearen argazkiak:

tolosaldean@hitza.info

*argazkien gutxienezkoak: 20 cm-ko zabalera eta 300eko bereizimena

Parte hartzaileen artean Hitzaren materialez osaturiko sorta zozkatuko dugu

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

→ Laburrak

Lapurdira irteera egingo dute Aizkarditik, igandean

VILLABONA > Aizkardi mendi taldeak Lapurdira irteera antolatatu du igande honetarako. Orzaize, Baigura, Urtsuia eta Hazparneren arteko ibilbidea egingo dute. Zazpi ordu inguruko ibilaldia aurreikusi dute Aizkarditik. Izena emateko azken eguna hilaren 17a izango da. Horretarako 649 71 71 82 zenbakira deitu behar da, 20:00etatik 22:00etara. Irteera ordua 07:00etan jarri dute, Olederra aurrean, igandean.

Qi-Gong ikastaroan izena emateko aukera

ANOETA > Qi-Gong ikastaroa antolatuko dute Anoetako Udaltik, Mikelasagasti auditorioan. Bereziki menopausiaren aurre eta ondorengo fasean aurkitzen diren emakumei zuzendua dago ikastaroa. Izena udaletxean, liburutegian edo kiroldegian eman behar da. Ikastaroaren kostua 25 euro da, eta ostegunetan izango da.

Ingelesezt egiteko tertuliak antolatu dituzte

KULTURA > Hiru astean behin, astelehenetan edo ostiraletan, 17:00etatik aurrera, ingelesez hitz egiteko tertuliak antolatu dituzte lagun artean, hizkuntza praktikatzeko helburuarekin. Entzutera joateko aukera ere egongo dela azaldu dute ekimenaren antolatzaileek. Ordu t'erdiko saioak izango dira, elkarri lagunduz, eta Tolosaldeko herritar oro gonbidatu dute ekimenera. Parte hartu nahi dutenek, 943 69 37 31 telefono zenbakira deitu behar dute, Olgarekin harremanetan jartzeko.

Subegi Kultur Elkarteak afari herrikoia egingo du

IBARRA > Iragan urte amaierako ohiturari berrekiteko asmoa azaldu du Ibarako Subegi Kultur Elkarteak. Hileko azken ostiralean, euskal preso eta iheslarien aldeko elkarretaratzearen ondoren, afari herrikoia egingo dute Subegi Kultur Elkarteak. Hilabete honetan urtarrilaren 25ean tokatzen da afaria, eta belaunaldi desberdinen topaketa honetara, herritar guztiak gonbidatu dituzte.

Irudia > Tolosa



UZTURREK, 20 URTE

Alkoholiko Anonimoen Tolosako Uzturre elkarteak 20 urte bete ditu, eta larunbatean sentsibilizazio jarduerak egin zituzten Zerkauasian, udalarekin elkarlanean. Batetik, alkoholismoari aurre egiteko informazioa banatu zuten, baita drogomenpekotasunari buruzkoa ere. Bestetik, Sasoiaren enpresaren bitartez, alkohol proba egiteko aukera jarri zuten, eta informazioa eskuratzeko. Alkoholaren eraginarekin berri ematen duten bideoak ere ikusi zituzten. I.G.L.

Mauka GAURKO ESKAINTZA

Ekitazio eskolak Hipica Gopegin

HIPICA GOPEGI
Mauka Gopegin, Arrieta, 11
01130 Gopegin, Arrieta
Tel. 43. 96. 93

30€ **berria**

www.mauka.eu

AHTaren aurkako oihua inoiz baino garrantzitsuagoa dela azaldu dute Elkarlanetik

Anoetan desjabetzen aurkako elkarretaratzea egingo du AHT Gelditu! Elkarlanetik, bihar, 08:30ean



Desjabetzen aurkako protesta Tolosako udaletxe atarian. ESTI EZBIZA

Asier Imaz

AHT Gelditu! Elkarlanetik galdera bat kaleratu nahi izan die eskualdeko herritarrei, abiadura handiko trenaren inguruan: «Nola liteke inoiz baino aurkari gehiago dituen momentuan, inoiz baino aurkako mugimendu eskasagoa egotea?». Ulertzea erraza ez dela iritzita, herritarrek mobilizazioetara deitu dituzte. Horieta lehen, bihar bertan egingo dute Anoetan, udaletxearen aurrean, 08:30ean.

Elkarretaratzearen leloa *Desjabetzerik ez! AHT'rik ez!* izango da. Elkarlanetik azaldu dutenez, azpiegituraren Hernalde-Zizurkil zatiko desjabetzeak urtarrilaren izango dira lau udalerritan: Hernalden atzo eta gaur; Anoetan bihar, Asteasun 23an eta Zizurkil 24an.

Elkarlanetik «gogor salatu» nahi izan dute proiektua, eta kasu honetan, desjabetzeak azpimarratu dituzte. Hori gizarteratze antolatu dute bihar Anoetan deitu duten elkarretaratzea: «Aipatu beharra dago, herribera, oso esanguratsua dela, ber-

tan egin zen galdeketa medio. Argi eta garbi esan zien anoetarrek ezetzkoa AHTari», gaineratu dute elkarlanetik.

Zizurkil-Andoain zatiari dago-kionean, azpiegituraren aurkako gizarte eragileak lanak hasiak dituztela aipatu dute: «Adunan dagoeneko zati honetan erabiltzeko asmoa duten zabortegietako bat garbitzen ari dira. Hondakin kutsakorrek dituen mina bat da. Horretaz gain, lanetan zehar erabiliko dituzten etxolak martxan daude, eta egin asmo dituzten tuneletarako bidea prestatzen ari dira». Horrez gain, lanen hasieran zein lanetan zehar, zundaketak egiten ari direla azaldu dute: «Honako hau da, eraikitzen ari diren modu lotsagarriaren erakusleeta bat, non, normaltzat jo-

daitekeen ondoren ezbeharrak izatea. Era berean, lanean ari diren beste hainbat zatitan, berriz ere desjabetze gehiago ari dira burutzen. Tolosako zatian, zein Legorretakoan adibidez. Ez dute hasieratik ezer argi uzten».

Krisi ekonomikoak AHT geldituko duela diotenei, hori ez dela horrela gertatuko erantzun diote elkarlanetik: «Kapitalista maltzur hauei bost axola zaizkie herritarrek. Gainera, espreski Europatik mailegua jaso berri dute. Dagoeneko hipotekatuta gaude, pixka bat gehiago ez da ezer». Krisiak geratu esperoan baldin bagaude, eurak lasaia jarraituko dute». Horregatik deitu dituzte herritarrek elkarretaratzea, inoiz baino garrantzitsuagoa delako, elkarlanaren esanetan.

Irudia > Amasa-Villabona



1.500 EURO BERRIA TALDEARENTZAT

'Amasa-Villabonak ziztada Berriari' lelopean antolatutako ekimenak Berria Taldeari laguntza ekonomikoa ematea zuen helburu, eta antolatzaileren esanetan, 1.500 euro bildu dituzte. Euskararen Ados! lan-mahaiak, udalaren laguntzare-

kin eta herritarren ekarpenekin lortu du diru kopuru hori. Berria Taldearen proiektuari babesa azaltzeko asmoz egindako ekimenen fruitua, Andoaingo Martin Ugalde kultur parkean dagoen Berriaren egoitzara eraman zuten herenegun. I.URBE

Alerta egoeran, euritearen ondorioz

Etenik gabeko euriaren ondorioz, urak gainezka egin du eskualdeko erreka, ibai eta urtegiatan

Iñigo Terradillos

Asteburuan hasi eta atzora arte ez zuen euriak etenik izan, eta ondorioak nabariak izan ziren eskualdeko erreka, ibai nahiz urtegiatan. Euskal Herriko beste zonalde batzuetan bezain ondorio txarrak izan ez arren, gainezka egin zuen urak puntu askotan, eta egun osoan zehar alerta egoe-

ran egon ziren larrialdi zerbitzuak.

Baliarraingo Ibiur urtegiari dagokionez, bete egin zen eta goiko ur zuloetatik ura botatzen hasi zen. Urtegi hori zabaldu zutenetik estreinakoz gertatu da hori. Ur Zerbitzuetatik azaldu dutenez, «presa betetzean jarraitu beharreko ohiko prozedura da».

Bestalde, ibaiei eta errekei dagokionez, puntu gatazkatsuenak Oria ibaia Alegian eta Araxes erreka izan ziren. Oria ibaian, Alegiako kontrol gunean, 1,38ko maila zuen herenegun urak, eta 1,89ko mailara igo zen atzo eguerdian. Alarma 0,80tik gora pizten da, eta gainezka egiteko arriskua

2,30ean dago. 55,1 l/m³ko batu ziren bertan arratsaldeko 19:00ak bitarte. Araxesen, berriz, 1,60ra igo zen uraren maila, eta gainezka egiteko arriskua 2 metrotan dago. 56 litro ur pilatu zen bertan.

Berastegiko errekek ere urugari zeraman, eta ur kopuruari dagokionez, litro gehien bota duenen artean dago herria, 83 litroekin. Beste puntu esanguratsua Bidania izan zen, 62 l/m³korekin.

Arazoak batean eta bestean

Gipuzkoako Foru Aldunditik lasaitasunerako mezua zabaldu zuten, izan ere, «eguraldiaren iragarpenek diotenaren arabera, eurria egiten jarraituko du, baina

gutxiago botako du, beraz, egoe-rak mantentzera edo hobetzera egingo du». Hori bai, alerta egoeran jarraituko dute gaur ere, hainbat puntu gatazkatsutan gerta baitaiteke ibai eta errekek gainezka egitea.

Hain zuzen ere, hori gertatu zen Zizurkilen eta Asteasun gainezka egin baitzuen ibaiak. Villabonan Oria ibaia ere gainezka egin zuen Txermin auzoan, eta baita Tolosan ere, Zubiberriaren ondoan. Tolosan bertan, Usabal auzoan ere gainezka egin zuen Araxes erreka. Bentaundi eta Auzo Txiki auzoan artean zuhaitz bat erori zen euriaren ondorioz, eta Albiztur aldera doan errepi-

dea moztuta egon zen, eta Tolosatik Anoetarako bidea ere moztu egin beharra izan zuten, Hernialderako bidegurutzean ura atera zelako.

Bestalde, euriteak izaten direnean gertatu ohi den moduan, hainbat lur azpiko garajeetan ura sartu zen, Tolosako Santa Maria nahiz Iurre auzokoetan kasu. Udaltzaingoak bertako jabeek autoak ateratzeko abisua eman zien, eta ura ateratzeko motoreak jarri beharra izan zituzten.

Bada, iragarpenen eta larrialdi zerbitzuen arabera, «okerrena» igaro den arren, oraindik ere zeruari begira igaro beharko da, ostera lasaitasunera heldu bitarte.




Tolosan Oria ibaia gainezka egin zuen puntua. A. IMAZ



Tolosako Olarrain auzoan luizi bat eragin zuen urak. A. IMAZ



Tolosako Iurre auzoan garajeetatik ura ateratzen. R.C.



Goian, Zizurkil, urak gainezka egindako puntuan. Behean, Ibiur urtegia ura botatzen. A.I./I.T.

TOPAk 2012ko balantzea egin du eta Osakidetzak Tolosaldea beste eskualdeen pare jartzeko neurriak hartuko zituela esan bazuen ere, egoera okertu egin dela dio.

Osasun zerbitzua, okerrera

Rebeka Calvo Tolosa

Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde koordinatzailearen borroka azken urteetan osasun arloa pribatizatzeke ematen ari diren ahaleginaren kontra doa. Eskaera bera dute taldea sortu zutenetik: Tolosaldeak kudeaketa publikoko ospitalea izatea. Baina borroka zaila da, sistema berak hartutako norabidearen aurkakoa, eta aurrerapauso asko eman badituzte ere, gizartea mobilizaziora deitu dute, «bestela nahi dutena egingo dute, hau da, osasuna pribatizatu eta zerbitzu kaskarrago eman», azaldu du koordinatzaileak kide den Jabi Aranak, 2012ko errepasoa egiterakoan.

Osakidetzaren hitza

Iazko urteaz hitz egiten hasteko Osakidetzak emandako hitza ekarri behar da gogora. Osakidetzak banatutako eskuorri batzuetan irakurri ahal zenez, Tolosaldearen egoera beste eskualdeetako baina kaskarragoa da eta hori dela eta, osasun arreta hobetzeko neurri zehatz batzuk hartuko zi-

tuela azaldu zuen: arreta espezializatua klinikara pasako zela erabat, ospitale arreta espezialitateen ambulatortik klinikara pasako zela, eta ospitaleko arreta Donostia ospitalean edo Asuncionen egin ahal izango zela, «baina eredu berri hau hasi zenetik Donostia baino Asuncionera nahi eta nahi ez joan beharko garelara ere esan zuten», nabarmendu du Aranak. «Era berean, 2012tik aurrera ospitaleko zerbitzu berriak izango genituela ere esaten zen», gaineratu du.

Hau guztia, hau da ambulatorioaren eta klinikaren arteko harreman hau, berriz ere itun bidez egin dute; ituna urteroz aztertuko dute eta gehienez bost urteko izango da. Ituna bertan behera uzteko arrazoietako bat helburu kualitatibo eta kuantitatiboak ez betetzea izango litzateke, eta Jabi Aranaren ustez, hori bete egin da: «Zerbitzu okerragoa dugu, jende gutxiago dago lanean, itxarote zerrendak igo dira... ituna bertan behera utzi beharko lukete».

Zentzu honetan koordinatzaileak kideak, Osakidetzak egindako azterketa bat ekarri du gogora,



Pasa den abenduan Tolosako kultur etxean batzarra egin zuten. E. MAIZ

izan ere, Asuncionek itunaren ebaluazio bezala aurkeztu zuen, baina inkesta bat besterik ez zen. «Osakidetzak jendearen asetzeari neurtzeko inkesta bat egin zuen, eta bertan jendea oso gustura zegoela azaldu zen. Baina hori ez da itunarekin jarraitu edo ez erabakitzeke balekoa den zerbait, inkesta soil bat baita. Inkesta horretan, gainera, oso azaleko gauzak neurtu zituzten: harrera, intimitate, langileen errespetua eta adetasuna... Kontutan hartu beharreko gauzak, behar bada, baina hori baino gauza serioagoez ere ari gara gu». «Txorakeria» hauez gain, hala ere, bi gezur ere bazuuden inkestan; bata, lantalde profesionalen ahalmen teknikoari dagokiona, eta bestea, zain egon beharreko denborari dagokiona. «Especialista bezala lanean dauden batzuk ez dira espezialistak», salatu du lehen puntuari dagokionez. Bigarrenengo «gezurrak» berriz hau dio Aranak: «Inkestaren arabera, bataz beste, 15 minutukoa da, baina guk salaketa asko jaso ditugu eta denbora hori gehituz doala ziurtatu ahal dugu».

Itxarote zerrendak

2012an abiarazitako itunaren arabera, batetik ambulatorioko hiru zerbitzu Asuncionera eramantuzte; kardiologia, traumatologia eta oftalmologia. Klinikari, ordea,

ez daude langile nahikoak, eta ondorioz, eskualdean inoiz egon ez den arazoa dagoela esan du TOPAko kideak: itxarote zerrenda luzeak. Bestetik, klinikara eraman ez dituzten, baina ambulatorioan murrizten ari diren zerbitzuak hauek dira: digestio zerbitzua, neurologia, eta dermatologia. Hiru hauen kasuan, langi-

le kopurua jaitzi dute, baina klinikari osatu gabe, eta ondorioz, hemen ere itxarote zerrenda luzeak ari dira sortzen. «Geroz eta okerrago gaude. Digestio zerbitzua ere kendu nahi zuten, eta guk bideratutako kexengatik jarri zuten, beraien asmoa kirurgiarik

«Langile gutxiago badaude ezinezkoa da zerbitzu hobea eskaintzea»

zerbitzu hori ematea baitzen», azaldu du. Bukatzeko, bada beste kasuistika bat ere; klinikari hartu zuten espezializazio bat, eta orain itzuli dutena: neumologia. «Langile gutxiago badaude, ezinezkoa da zerbitzu hobea eskaintzea. Logikoa da», azaldu du.

Aranak argi du: «Jasotako datuek argi jutzen dute zerbitzu okerragoa jasotzen ari garela. Eredu berri honek ez digu gainontzeko eskualdeek jasotzen duten zerbitzura gerturatzeko, kontrakoa baizik. Eta ez badugu ezer egiten, horrela jarraituko dugu; bide okerretik». Zer egin beharko litzateke orduan, zerbitzua parekatzeko? «Asuncion klinikari publiko bihurtu, beste eskualdeetan bezala, eta espezialitateen ambulatorioari lehen zituen egitekoak itzuli».

↓ TOPAren datuak

TOLOSako ZERBITZUAK

■ Ambulatorioko zerbitzuak.

Bai ambulatortik klinikara eramandakoak, eta baita ambulatorioan ematen direnak.

■ Ospitaleko zerbitzuak.

Asuncion klinikari bakarrik.

■ Zerbitzu berriak.

Asuncionek eman beharrekoak, baina ez dituzte behar bezala ematen.

ALEGAZIOAK

■ Itxaron zerrenda luzeak sortu dira.

■ Mediku orokorrak espezialista bezala daude lanean.

■ Ordenagailu-sistemak koordinatu gabe.

■ Farmazia zerbitzua ez da nahikoa.

Asuncioneko eri ba-

tzuei sendagarik ez zutela eta etxekoa eramateko eskatu diente.

LANPOSTUEN ZERRENDIA

■ Osakidetzako eskualdeetako ospitaleak.

Beste eskualdeetako langileen kopuruaren batzaz bestekoa aterata, 39,1 langile ateratzen dira. (82.267 biztanle artatzen dituztela hartu da kontutan)

■ Asuncion klinikari.

Gaur egun 20,1 langile daude (65.000 biztanle artatzen ditu). Asuncion klinikari publiko baliatuz, 30,9 aterako litzateke.

■ 10,8 espezialista.

Asuncion klinikari falta zaizkion langileak; %53 langile gehiago beharko litzuzke, ospitale publikoaren pare geratzeko.

Ekitaldi sinbolikoa egingo dute larunbatean ambulatorioan

➔ Larunbatean, hilak 19, elkarretaratzea egingo dute 12:00etan Trianguloa plazan. Baina TOPAko kideak protesta bide berriak egin nahi dituzte «inposatu nahi duten atentzio eredu berriari desadostasuna adierazteko», eta hori dela eta ekitaldi sinbolikoa egingo dute elkarretaratzea eta gero. Trianguloatik espezialisten ambulatortara joango dira eta han, sinbolikoki, denon artean eraikuntza besarkatuko dute.

2 sarrera

LAGUN ARO GBC
Flatc Juventud
seskibaloiz partida

Getxoa - urtarrilak 18 - 20:00
Donostia futbolen

Zozketan parte hartzeko deitu osteguna 14:30ak baino lehen 943 65 56 95 telefono zerbakira.

zozketa

Txolarre Irratiaren bertso saiorako
2 sarrera

Larunbata - urtarrilak 19 - 18:00
Tolosako Leizor Auzoa

Zozketan parte hartzeko deitu osteguna 14:30ak baino lehen 943 65 56 95 telefono zerbakira.

sarrerak

Berastegiko udaletxeko obrak bi asteren buruan amaituko dituzte

Eraikinaren egitura, kanpoaldea, teilatua eta lehen solairua konpondu dituzte lehenengo fasean

Iñigo Terradillos Berastegi

Udaletxeko zaharberritze lanen lehen fasea bukatzeaz dago. Monumentu izendapena duen eraikinaren egitura, kanpoaldea, teilatua eta lehen solairua konpontzen aritu dira azken hilabeteetan, eta otsailaren hasierarako amaituko dituztela obrak aurreikusitako dute.

Hala, otsailaren zehar egingo dute leku aldatzea, eta martxo alderako udal bulegoak bertan martxan izatea espero dute. Lehen fase horretan altzariak aurreikusitako gabe zeuden, baina, azkenean, Eusko Jaurlaritzatik nahiz



Hamar hilabete inguru iraun dute obrek. I.T.

Gipuzkoako Foru Aldunditik jasotzen diren diru laguntzak tarteko, posible izan da. Baita, aurreikusitako gabe zegoen beheko solairuko erabilera anitzeko gela ere. Hori bigarren fasean egokitzea aurreikusitako zen, baina azkenean lehen fasean egitea posible izan da, eta apirilera prest egongo da.

Obrek 1.800.000 euroko aurrekontua izan dute. Orain bigarren fasea, hau da, bigarren solairuko liburutegia, irakurketa gela eta haur liburutegia egokitzeko diru laguntzen eskaera egingo du Berastegiko Udalak, eta laguntzak jasotakoan hasiko lirateke obrek.

Animaliak bedeinkatuko dituzte Berastegiko San Anton ermitan, bihar

10:00etako mezaren ostean apaizak animaliak bedeinkatuko ditu, eta hamaiketako ere banatuko dute

I. Terradillos Berastegi

Egutegiko egun berezi horietako bat dute biharkoa, Berastegin. San Anton eguna dute, eta izen bereko ermitan egingo dituzte, ohi bezala, ospakizunak. Berezi-tasuna, ekitaldi horien protagonistetan dago. Izan ere, herritarrek euren animaliekin bertaratu dira, hauek bedeinkatuak izan daitezten.

10:00etan izango da meza, eta hau bukatzean bedeinkatuko dituzte apaizak animaliak. Gehien ikusten direnak zakurrak izaten

diren arren, katuak, oilaskoak, arkumeak... denetariko animaliekin gerturatzeko dira inguruko herritarrek ermitara. Animalien patroia da San Anton, eta animaliek urte ona izan dezaten bedeinkatzen dira egun horretan.

Bada, animaliak bedeinkatzeaz gain, hamaiketako egiteko aukera izango dute gerturatzeko direnak, elizkizuna amaitzean prest egongo baita elizaren atarian jatekoa eta edatekoa.



Animaliak bedeinkatzen, iaz. I.T.

Pasai Donibanetik Hondarribira irteera antolatu du Mendibilek

Talaien bidea izenekoa egingo dute; parte hartu nahi dutenek bihar dute izena emateko azken eguna

I. Terradillos Leitza

Leitzako Mendibil mendi taldeak urteko lehen mendi irteera antolatu du larunbat honetarako, hilaren 19rako. Hain zuzen ere, Pasai Donibanetik Hondarribiraino joango dira, Jaizkibeldik igarota.

Talaien bidetik izenekotik izango da Mendibil taldeak proposaturiko ibilbidea. Lau ordu eta

erditan egiteko moduko ibilbidea da, eta zailtasunik gabekoa, familia osoak egiteko aukera, beraz. Larunbatean 07:30ean irtengo dira Oialde paretik. Autobusez egingo dute joan-etorria, eta 14:30ak ingururako aurreikusitako dute itzulera.

Mendi irteera honetan parte hartu nahi dutenek Leitzako Astiz edota Maimur liburutegietara jo beharko dute edo mendibilaurrera@hotmail.com helbidera idatzita eman ahalko dute izena. Aurrera elkarteko bazkide direnek 5 euro ordaindu beharko dute, eta bazkide ez direnek, berriak, 10 euro. Izena emateko azken eguna bihar, osteguna, izango dela jakinarazi dute.

Otsailean hasiko dira Leitzako Amazabal auzoko urbanizazio lanak

Bost hilabeteko iraupena, eta 490.000 euro inguruko aurrekontua izango dute

I. Terradillos Leitza

Hilabete barru, otsailaren bukaera aldera, hasiko dira Amazabal auzoko urbanizazio obrek. Lan hauen aurrekontua 490.000 euro ingurukoa izango da, eta 5 hilabeteko iraupena izango dute.

Leitzako Udalak lehiaketara ateratu zuten obra hauek esleitzeko prozesua, eta azkenean Arian enpresa izan da lehiaketa irabazi eta lanak egitearen ardura hartu duena.



La auzo guztian egingo dituzte urbanizazio lanak. I.T.

La Amazabal auzo osoa berrituko dute. Lur-azpiko sareak berrituko dituzte, eta zoladura eta espalo berriak egitea ere aurreikusitako du proiektuak. Obrek trafikoan nahiz herritarren egu-

neroko jardueran ahalik eta eragin txikiena izaten saiatuko direla azaldu dute, eta proiektu honetan berritu gabe geratuko diren eremuetan hurrengo fase batean egingo dutela lan adierazi dute.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



12°
7°

GOIZA	EGUZKIA
ARRATSALDEA	LANOTUTA
BEROENA	9°
HOTZENA	-1°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta/Aldea: 687 410 022. anoetaaldea@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza/Aldea: 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Ibarra



IBARRATIK LEABURURAKO BIDEA ITXITA

Ibarratik Leaburura doan errepide zatian obretan ari dira astelehenaz geroztik. Nahiz eta atzo, aste-arte, lanak alde batera utzi zituzten, gaur, berriz ekingo diete obrei, eta berriz ere errepidea itxita egongo da. Ezingo da autoz pasa Apatia industri- gunitetik Ibarra doan errepidean. Eguraldiak bal-

dintzatuko badu ere astebeteko lana izango dute. Errepide ertzean, 40 metroko luzera eta hiru metroko altuera izango duen harri lubeta eta 100 metroko hormigoizko areka egiten ari dira. Ibarra-ko Udalak jakinarazi duenez Gipuzkoako Foru Al- dundia ari da lan hauek egiten. ASIER IMAZ

Agurak



Zorionak!
Tomas Ezeiza (Tolosa), 89 muxe familiaren partetik. Urte askotarako aita.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●●● **agurrak**

Agenda

DANTZA

■ **Tolosa.** 'El lago de los cisnes', Errusiako Estatu Balletak emal- naldia eskainiko du. Gaur, 20:30ean, Leidor aretoan izan- go da.

BESTELAKOAK

■ **Tolosa.** Hilaren 20an izango da Ero Etxeko krosa, San Fran- tzioko pasealekuan. Bertan par- te hartu nahi duten haurrek, be- raien ikastetxeetan izena ema- teko aukera dute. Egunean bertan ere izena emateko auke- ra izango da.

■ **Tolosa.** Txolarre irratik hila- ren 19an, larunbatean, egingo duen bertso jaialdirako sarreak salgai daude. Leidor aretoan, Egaña, Lujanbio, Maia, Arzallus, Elortza eta Martin bertsolariak ariko dira Amaia Agirre gai jar- tzailearen gidaritzapean. Sarre- rak: Tolosan Raku, Orbela, Kan- tabriko eta Denak tabernetan; Ibarra, Zubiaurre tabernan; Anoetan, Buztina tabernan; Vi- llabonan, Amasa kafetegian; Zi- zurkilen, Iriarte jatetxean; Ale- gian, Izkina tabernan eta Beras- tegin Urepele elkartean. Aldez aurretik 10 euro eta egunean bertan 12 ordaindu beharko da.

■ **Abaltzisketa.** Abaltzisketan Tolosaldea Sahararekin elkar- teak urtero antolatzen duen kanpainarekin egin dute bat. El- karteak elikagaiak, norberaren garbiketarako produktuak eta eskolarako materiala bildu nahi ditu Saharara bidaltzeko. Pro- duktuak udaletxean utzi behar dira.

■ **Alegia.** Saharara bidaltzeko produktu bilketa egiten ari dira; udaletxeko gizarte zerbitzuetan edo San Juan eskolan utzi behar da materiala.

■ **Leitza.** Hilaren 19rako Mendi- bil mendi taldeak irteera anto-

latu du Hondarribira. Bihar da izena emateko azken eguna, eta Astiz edota Maimur liburuden- detan eman behar da.

ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** Iraia Okinaren ilu- strazioak, eta Javier Baldaren eta Nerea Ugarteren lanak ikusgai daude, Aranburu jauregian.

IKASTAROAK

■ **Tolosa.** Afrika Menbaldeko dantza ikastaroa izango da, Bonberenean, asteazkenero. Izena emateko bi modu daude: ainhoaagi@gmail.com helbide- ra idatziz edo 653 732 709 tele- fono zenbakira deituz. Hileko kuota 30 euroko da, eta Ainhoa izango da irakaslea.

■ **Aduna.** Afrikar dantzen ikas- taroa eskainiko du Adunan da- goen Asvinenea arte eszenikoan laborategiak. Asteartero izango da ikastaroa 19:00etatik 21:00etara. Zuzeneko perkusio doinuek lagunduta, eta Marie Toure ginearra izango da irakas- lea. Izena laidall@hotmail.com helbide elektronikora idatziz edota 691 626 606 (Laida) te- lefono zenbakira deituz egin be- harko da. Hilabeteko kuota 45 euro izango da, eta bazkideen- tzat 40 euro.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gaue- koa: Bengoetxea, E. Kale Nagu- sia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga ka- lea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esa- nen etairtizien erantzukizunik.